



11:00etan Goikoplazatik abiatuko da ibilbidea, eta Alfaro parkean dagoen biktimen aldeko monumentuan amaituko da 13:00ak aldera

2016ko apirilaren 22a, 478 zenbakia XI. urtea Andoain eta Urnietan doan banatzen da

IBILBIDE GIDATUA, LARUNBAT HONETAN

Koadrilen eguneko bazkarirako txartelak salgai daude jada

Aurtengo Santa Krutz jaietako koadrilen eguna maiatzaren 2an izango da, astelehenarekin.

Jai batzordeak egunari dagozkion xehetasun guztiak lotu ditu, eta dagoeneko bazkarian parte hartzeko txartelak 6 euroko prezioan salgai daude Irunberri, Txindoki, Xaxi eta Txitibar tabernetan. Txartela eskuratzea ezinbestekoa da koadrilen eguneko bazkarian



Txartelak 6 eurotan salgai daude Irunberri, Txindoki, Xaxi eta Txitibar tabernetan.

parte hartu ahal izateko. Prezio horretan tokia eta edaria sartzen dira. Janaria, aurreko urteetan egin bezala, bakoitzak berea eraman beharko du. Koadrilen eguneko bazkaria 14:30ean hasiko da Bekoplazan. Euriarekin, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.

Koadrilen egunaren ospakizunak goizetik hasiko dira, gazteen arteko jolasekin. Bazkariak batuko ditu festazale guztiak, eta ondoren txosnatan karaokea antolatuko dute.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Goenagari omenaldia Sorabillan

Adiskideek eta herrikideek azken agurra eskainiko diote Mikel Goenagari.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Muxugoxo elkarte



Ainara de Miguel.

Apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, arratsaldeko 19:00etan Saroben iragarritako dagoen emanaldia Inñistorrak eta Muxugoxo elkarteak antolatu dute elkarlanean. Bertan, Mirian Uhalte eta Maialen Diazek ipuin erotikoak eskainiko dituzte zuzeneko musikaren laguntzarekin. Emanaldia aitzakiaz hartuta, Urnietan sortu berria den Muxugoxo elkarte hobeto ezagutzera hurbildu da Aiurri.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

“Gabon Txirrita” barru-barrutik

Bartolo Orkaizagirrek eta Joxemari Berasategik ondoto ezagutzen dute Letek sortutako antzezlan.

Xabier Letek 1982an sortu eta zuzendu zuen “Gabon Txirrita” antzezlan aurtengo irailean eskainiko dute berriro, zuzendari eta lantalde berriarekin. Lehen edizio hartan Matxo tabernako Bartolo Orkaizagirre Txirritaren paperean aritu zen. Aste hone-

tako Aiurri, Orkaizagirrek iraganeko esperientziaz dihardu: “Xabierrek gogor hartzen gintuen eta azken egunetan entseguak asko luzatu ziren”. Beraz, Matxo taberna Buruntza antzerki taldearen arima eta bihotza da.

Harekin batera, aspaldi hartako eta gaur egungo antzezlan barrutik bizi duen Joxemari Berasategi ere Xabier Letez eta antzerki emanaldiaz hitz egiteko prest agertu da.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Xabier Lete eta Bartolo Orkaizagirre 1982ko antzezlaren entsegu batean.



Errenta Aitorpena Euskaraz


Batu eta Gehitu Etekina
Apirilaren 11tik Ekainaren 25era.
Euskara Lehenetsi!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>

f Albistea elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria
Urnietan / Usurbil

Udal Euskara Batzordeak



“GABON TXIRRITA” ANTZEZLANAREN IRAGANA ETA ORAINA UZTARTUZ MATXONEAN

Matxo taberna, Buruntza taldearen arima eta bihotza

Bartolo Orkaizagirre (Urnieta, 1960) eta Joxemari Berasategirekin (Urnieta, 1964), “Gabon Txirrita” antzezlanaren iraganaz eta orainaz hitz egin du Aiurrik. Bartolok, Txirritaren papera egin zuen

1982. urtean taularatu zenean, Joxemarik, fiskalaren papera beteko du datorren iraileko emanaldietan. Hiztordua non eta Buruntza antzerki talde ohiaren arimak bizirik dirauen Matxo tabernan.



Matxo tabernara sartzen denak, berehala antzemango du taberna horrek hiru-rogeita hamarrek hamarkadan eta laurogeikoaren hasieran Urnietan bizi-bizirik egon zen, **Lourdes Iriondo** eta **Xabier Letek** sortutako **Buruntza** antzerki taldearen arima eta bihotza bizirik mantentzen direla. Bartolok, tabernariak, bertako paretan dekorazioa, orduko kartel, prentsa artikulua, eta abarrez osatuta dauka. Mimoz zaindu, eta harrotasunez erakusten ditu.

“Gabon Txirrita” obrako protagonista nagusia izan zinen 1982. urteko emanaldietan. Zer oroitzen duzu orduko hartaz?

Bartolo Orkaizagirre: Buruntza taldearen azken lana izan zen. Oso talde-giro polita genuen. Xabierrek banatu zituen paperak, Txirritarena niri emateko garaian ez zuen inongo zalantzarik izan, obra osoa buruz ikasi beharra izan nuen. Xabierrek gogor hartzen gintuen eta azken egunetan entseguak asko luzatzen ziren. Estreinaldi moduan, Eliz ondo zineman hiru emanaldi eskaini genituen. Sarrera guztiak saldua, jendea kanpoan geratu zen. Ondoren, emanaldi asko eskaini genuen, batez ere, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina, baita Araban eta Nafarroan ere. Gehienetan, antzokietan, eta hainbatetan, frontoietan ere bai, hori bai, beti mikrorik gabe.

Joxe Mari, zu Buruntza taldean aritutakoa al zara?

Joxe Mari Berasategi: Ez nintzen taldekoka izatera iritsi, adin-nan ni baino zaharxeagoak ziren taldekideak. Baina, gogoratzen naiz izeba Lourdesek



Bartolo Orkaizagirre eta Joxemari Berasategi, Matxo tabernan.

“Xabierrek banatu zituen paperak, Txirritarena niri emateko garaian ez zuen inongo zalantzarik izan. Xabierrek gogor hartzen gintuen eta azken egunetan entseguak asko luzatzen ziren”

Bartolo Orkaizagirre

ematen zizkidala halako paxto txiki batzuk. Eta orduko “Gabon Txirrita” lanean ere egin nuen paper bat, hasierako emanaldietan aritu eta taldea utzi zuen aktore bat ordezkatzuz.

Gabon Txirrita, izan zen Buruntza taldeak taularatu zuen azken obra?

B.O.: Bai, hala izan zen. Gaztetxo ginela hasitakoak ginen, baina, urteetan aurrera joan ahala, bakoitzari bere bizitza egiteko adina iritsi zitzaigun. Azkeneko emanaldia, oker ez banago, Oiartzungo frontoian eskaini genuen, Xabierren ama bertan zela.

Antzezlanaren grabaketarik egin al zen?

B.O.: Orduan martxan jarri be-

rria zen ETBk, Bergarako emanaldia grabatu zuen. Saiatu izan gara grabazio hura lortzen, baina, inon ez dugu aurkitu. Badakigu, baita ere, Hernaniko Aitor zineman norbait bere kamerarekin grabatu zuela, baina, ez dugu horren berririk ere.

Joxe Mari, zer suposatzen du zuretzat obra honetan parte hartzeak horrenbeste herritarrekin batera?

J.M.B.: Aurrekoa barrutik bizitu ondoren, 34 urte geroago berriro taularatzeko horrenbeste jende prest dagoela ikustea gauza ederra da, gainera, osabak idatzitako obra bat izanik, arreba eta biontzat esanahi berezia du.

Nolakoa da taldearen lan giroa?

J.M.B.: Oso itxura ona dauka. Jendea, intentzioarekin ari da lanean. Orain, testua ondo-ondo barneratuta edukitzea garrantzitsua da, eta ikusitakoagatik badirudi bakoitzak berea emango diola egokitu zaion paperari.

Testua ondo ikasteko gomendiorik bai?

J.M.B.: Bakoitzak aurkitu be-

“34 urte geroago berriro taularatzeko horrenbeste jende prest dagoela ikustea gauza ederra da. Osabak idatzitako obra izanik, arreba eta biontzat esanahi berezia du”

Joxemari Berasategi

har du berari ondo doakion metodoa. Ez baitago denentzako baliagarria den metodorik. Egokitu izan zaizkit asko ikasi beharreko boladak, adibidez, telebistan egunetik egunera ikasi beharreko testuak. Horrelakoetan, oinez, pasiatuz ikasten nituen.

B.O.: Ni oso burugorria izan naiz beti, eta gogoratzen naiz obra honetarako ikasi behar izan nituen bertsoak Xabierrek zinta batean grabatu zizkidala, eta denbora osoan kaskoak jantzita ibiltzen nintzen, behin eta berriz haiek entzunez. Oraindik ere bertso batzuk buruan daukat, eta uste dut betirako.

Joxe Mari, fiskala izango zara, nolakoa da zure papera eta nola aurkitzen duzu zure burua?

J.M.B.: Akusazio ugari eginez, Txirrita desegiten saiatzen da fiskala. Oso ondo ikusten dut nire burua. Gozatzen ari naiz hasieratik.

Honetaz gain, zer daukazu eskuarteetan?

J.M.B.: Jubilatuen etxeko antzerki taldearekin Donostian taularatu dugun lan bat prestatzen ari naiz. Lehen Hezkuntzako umeekin ere jarraitzen dut antzerkitxoak prestatzen. Eta orain grabatuko den “Altzoko handia” pelikulan parte hartuko dut. “Loreak” filmean parte hartu nuen, eta hau ere lantalde berdina egingo du. Espero dut “Loreak” bezalako ibilbidea izatea honek ere.

“Loreak” filmaren arrakasta, espero al zenuten?

J.M.B.: “Loreak”ekin harrিতa nago, mundu zabalean ibili da, Oscarretaraino ere iristear izan da, eta gainera, euskaraz egina, eta euskaraz erakutsia, hizkuntza ezberdinetara soilik azpiztituluekin itzulita, hori meritu handia da.

Non sentitzen zara ondoen, zinema, telebistan, antzerkian...?

J.M.B.: Goenkalen 12 urte egin nituen, eta gerora ere, gehienbat telebistan ibili izan banaiz ere, zinema erruz gustatzen zait. Antzerkiari dagokionez, duela urte batzuk Bilboko Arriagan “Joneren ametsak” antzezlanean protagonista papera eman zidaten. Eta orain, oso ondo etorriko zait antzerki lan hau egitea.

B.O.: Antzerkian, ez dago zinema edo telebistan bezala moztetik, hor frogatzen da benetako aktorea zein den. Iruditzen zait antzerkia askoz ere osoagoa dela zinema baino.

Buruntzako taldekideen artean, emanaldien atarian, urduritasun handia nabaritzen al zen?

B.O.: Gu orduan eszenatokira etxeko pasillora bezala sartzen ginen, frakasoari batera beldurrik izan gabe, ez ginen urduri jartzen. Hala ere, ez pentsa, hanka sartzeak egiten genituen.

Anekdotaren bat gogoratzen al duzu?

B.O.: Uste dut Bermeoko pilotalekuan izan zela. Emanaldien erdian izugarritzko kazkabar jasa bota zuen, teiltua uralitazkoa zenez ez zen ezer entzuten, eta geratu beharra izan genuen. Kazkabarra pasatukoan jarraitu genuen.

Ez al zaizu oraingoan parte hartzeko grinarik piztu?

B.O.: Tabernari lanak ezinezko egiten dit parte hartzea. Oraingoan, ikusiz asko disfrutatuko dut, eta antzezlanaren aurreko entseguren batera joateko asmoa ere badut.

KULTUR JARDUERAK LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA

Muxugoxo aholkularitzara bideratutako elkarteak

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Noiz sortu zen Muxugoxo elkarteak eta zerk bultzatuta?

Ainara de Miguel: Muxugoxo elkarteak duela 11 hilabete sortu zen formalki, baina, amets guztien moduan, urteak zeratuzan nire buruan. Beharra sumatzen nuen, eta gaur egun inguru egokia dut, profesional apartak, lanerako gogo askokoak eta behar berberak antzeman dituzten pertsonak.

Nortzuk osatzen duzue elkarteak?

A.M.: Neronek, eta beste hiruk osatzen dugu legez, baina praktikan, **Gaby Zalazar** ginekologoak, **Tania Navarro** psikologoak, **Maddi Irastorza** erizain eta irakasleak, **Lierni Santxo** udaltzainak, hezitzaileok, eta Ikasmin akademiako lagunak.

Zein dira zuen helburuak, eta zein da eskaintzen duzuen zerbitzua?

A.M.: Gure helburu nagusiak bi dira, gure ingurua hobetzea eta ikastea. Horretarako Webgune bat sortu genuen: muxugoxo.org. Bertan, kontsulta egin daiteke sexualitatea, intimitatea, higiena, edota harreman osasuntsuez... Kontsulta horiek korrean jasotzen ditut eta dagokion profesionalari bideratzen dizkiot. Azken honek emandako erantzuna "Gure Txokoa"n jartzen dut, denon eskura. Kontsulta anonimoa da, eta doakoa. Gainera, bideo batzuk ere sortu ditugu, helburu didaktikoarekin, eta hauek ere doan daude ikusgai. Muxu-



Ainara de Miguel eta Maddi Irastorza Muxugoxo elkartearen kideak.

Sexualitatea, intimitatea, higiena, harreman osasuntsuak... muxugoxo.org bunean kontsulta daitezke

goxo gunean eta Youtube katean ere ikus daitezke. Doakoa den harpidetza bila gabiltza.

Zein izan da orain arte egindako ibilbidea?

A.M.: Pauso oso xumeak emanez hasi dugu ibilbidea. Esan beharra dago, "Olatu Energia" hautatu zutela gure proiektua 2015eko maiatzaren eta bertan jasotako dirua dela bideo horiek egiteko baliabide guztia. Euskadi Irratiak ere erakutsi du interesa, asko lagundu digu.

Urnietan zerbitzu antolatzeak asmorik bai?

A.M.: Bai! Maiatzaren 27an, Gazte festak direla eta, Saro-

ben Muxugoxo aurkezteko asmoa dugu, orain arte egindako lana erakusteko eta gure helburuak azaltzeko. Hori egiten dugun bitartean, liburuak eta sexualitatearen inguruko materiala mahai batean ipiniko ditugu. Xamoa bertsolariari esker, bertso saio musikatua egingo dugu. Sarrera 3 eurotan jarriko dugu.

Nola jarri gitezke Muxugoxo elkartearekin harremanetan?

A.M.: Webgunetik bertatik, emailaz (info@muxugoxo.org) edota telefonoz (645 991 362).

Bazkide berrientzat irekita al dago?

A.M.: Ez dugu kuota bidezko bazkide formatuan pentsatu, bai ordea, laguntzaileengan. Gure orria bisitatu, Youtuben harpidetu... Horiek dira gaur egun laguntzeko biderik onenak.

"Joxinixio gudaria" liburuaren aurkezpena



Mikel Atxaga, liburuaren idazlea.



Iriondo, liburuaren sustatzailea.

Mikel Atxaga urnietarra kazetari eta euskaltzale ezaguna izan zen. 2009an hil aurretik, idatzita utzi zuen 36ko Gerra hil zen **Joxinixio Etxeberria** Andoaingo gudariaren bizipenak kontatzen dituen nobela. Urte batzuk geroago, Auspoa argitaletxeak liburu argitara eman du. Urtarrilean egin zuten liburu horren aurkezpen ekitaldia Basteron, **Pello Esnal** idazlearen eta **Elixabete Garmendia** kazetariaren parte hartzearekin.

Hiru hilabete geroago, **Iñistorrak** Urnietako idazlearen eleberria Urnietan bertan aurkezteko ardura hartu du, Liburuaren Nazioarteko Egunen ekitaldien baitan. Datorren apirilaren 27an izango da, asteazkenarekin, Lekaio kultur etxeko areto nagusian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da aurkezpena eta **Joxemari Iriondo** eta **Pello Esnal** Auspoa argitaletxeko kideek hartuko dute parte.

Andoaingo Merdilegi base-rikko seme zen Joxinixio

Liburuaren aurkezpen ekitaldia apirilaren 27an izango da Lekaion, 19:00etan hasita


Etxeberriaren ibilerak kontatzen dira eleberri horretan. Iriondok liburuaren aurkezpenean esan zuen bezala, "euskara bikainean idatzitako nobela laburra da. Historiaren mamiak zein kontaerak, biak ere bizitasuna ematen baitiote nobelari".

Pello Esnalek bere aldetik, Andoaingo aurkezpenean aitortu zuen Atxagak bikain deskribatzen duela garai hartako giroa, Andoaingoa zein Gipuzkoa zein Bizkaiko fronteetako: "Liburuan historiak hamaika hilabete eskas irauten du. Merdilegi baserrian has ten da eta baserriar, euskaldun eta bertsolari den Joxinixiok gerra giroan egiten dituen urratsak kontatzen ditu".

Liburu eskuragarri izango da aurkezpen ekitaldian.

Liburuaren eguna Urnietan

apirilak 23, larunbata

Antolatzailea: Iñistorra
Babeslea: Urnietako Udala

11:00-14:00 Liburuak salgai San Juan plazan.

Datorren maiatzaren 20ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" emanaldirako sarrerak bertan salgai ipiniko dira.

19:00 "Gurea da plazerra" ipuin erotikoak Saroben, Iñistorra eta Muxu goxo ekartearen eskutik.

3 euro. Salgai: Sarobe, Ikasmin, Kantoi, Xauxar.



Laguntzailea: Aiurri

Lankidetzaz hitzarmenak gizarte mailako taldeekin



Urnietako Udalak herriko parrokiako misio batzordearekin lankidetzaz hitzarmena sinatu du. Hala, Afrikan egitasmo ezberdinak garatzen jarraitu ahal izango du-

te. Hala nola Togo, Mali, Congo edota Etiopia herrialdeetan. Udalak ere **Gazteak eta Garapena** eta **Perurekin** elkarteekin ere hitzarmen bat sinatu du Udalak.



DYAk doako tailerra antolatu du bere egoitzan



DYAk Idiazabal kaleko 13. zenbakian duen egoitzan Bihotz Biriken Suspertzearen (BBS) teknika irakatsiko du. Ekitaldia herritar orori irekia da, eta apirilaren 29an izango da arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Izen-ematea, 943 46 46 22 telefono zenbakian. Tailerra doakoa izango da, eta ez da aldezturik behar.

Argazkian, Aiala eskubaloitako taldeko emakumeak teknika erakustaldia egiten.

Hiru bilera deitu dituzte Denda Berri, Xoxoka eta Lekaion

Hamaika inbertsio aukeren jendaurreko aurkezpenak



Denda Berri elkartearen egin zuten lehen aurkezpen ekitaldia, astelehen arratsaldean. Hiru egin dituzte dena, aste honetan.

Inbertsio estrategikoak gauzatze-ko aukeran dauden 11 proiektuak aurkeztu dituzte aste honetan. Denda Berrin egindako lehen bileran, bertaratutakoek bideoen bitartez inbertsioen inguru-

ruko irudi eta datuak jaso zituzten. Horren ostean, bertaratu zirenek zalantzak agertzeko tartea izan zuten; gehienak, parte hartzearen ingurukoak izan ziren. "Ez da derrigorrezkoa zerrendan

inbertsio guztiak jartzea, baina guk eskertuko dugu", azaldu zuen Mikel Pagola alkatea. Ostiraletik hasita, maiatzaren 9a arte, 16 urtetik gorakoek bozka emateko aukera izango dute.

DATOZEN ASTEETAKO EGUTEGIA

INFORMAZIO KARPA

Apirilak 22, ostirala

Etxeberri plaza: 10:30-14:30.

Guria ondoan: 17:00-20:00.

Apirilak 25, astelehena

Lizardi: 10:30-14:30.

Etxeberri plaza: 17:00-20:00.

Apirilak 26, asteartea

San Juan plaza: 10:30-14:30

Lekaio: 17:00-20:00.

BOZKATZEKO EPEA

Nola bozkatu behar da?

11 proiektu horien artean lehentasunak ezarri behar dira. Lehenetsi nahi den proiektuari 1 zenbakia jarriko zaio, bigarrenari 2 zenbakia, eta horrela hurrenez hurren. Ondoren, jasotako orri guztietan agertzen diren proposamenek jaso dituzten puntuak batuko dira.

Noiz arte bozka daiteke?

Maiatzaren 9a bitarte.



Nortzuk bozka dezakete?

Urnietan erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek.

Non eskuratu bozkatze orriak?

Eta non utzi, beteta?

Informazio liburuxketan, udaletxean, Lekaion eta kiroldegian.

Behin orria beteta, uzteko hainbat buzoi eta kutxa ipini dira herrian zehar. Ondorengo puntuetan topa daitezke:

Buzoiak: San Juan plaza, Gaztelo, Herriko Etxea (Santa Leokadia), Arantzubi, Etxeberri plaza, Idiazabal kaleko autobus geltokia, Idiazabal kaleko 2 farmaziak, Guria, Xoxoka.

Kutxak: Udaletxea, Lekaio, Kiroldegia, zaharren etxea, Anbulategia, Epape ikastola, Azkorte, Presentacion de Maria ikastetxea, Salesiar ikastetxea.

Online: Udalak webgunean leku berezitu sortu du: www.urnieta.eus.



Chef Chof

Apirilak 24, igandea
Sarobe AEG. 17:30etan
Sarrera 3 €



HAREN ALDEKO MEZA 11:30EAN HASIKO DA, ETA ONDOREN OMENALDI EKITALDIA

Mikel Goenagari omenaldia igande honetan, Sorabillan

Mikel Goenaga Telletxea apaiza gaixotasun baten ondorioz hil zen pasa den martxoaren 16an, baina haren gertuko eta lagunek gogoan izan nahi dute.

Sorabillan omenaldi ekitaldia egingo diote igande honetan, goizeko 11:30ean hasita. Haren aldeko meza egingo dute Sorabillako elizan, eta, ondoren, omenaldi ekitaldi irekia antolatu dute.

Luis Escudero Ruiz de Larrinaga andoaindarraren omenaldi ekitaldiaren antolaketa parte hartzen ari den kideetako bat da. Igandeko omenaldia, talde modura nahiz bakarka Mikel gogoan hartzeko unea izango dela adierazi du.

Nola sortu zen omenaldi ekitaldia egiteko ideia?

Luis Escudero. Bat-batean sortu zela esango nuke. Oso azkarra izan zen prozesua, bereziki hileta elizkizuna eta gero. Adiskideak eta ezagunak elkarren artean hitz egiten hasi, oroitzenak biziberritzen jarri eta omenaldiari begira ideiak sortzen hasi ziren. "Ondo legoke zerbait egitea" adierazpenak entzuten hasi ginen, beste batetik haren aldeko plaka jartzeko proposamena bota zuen... Azkenerako egokiena bilera deitzea zela ondorioztatu genuen. Denen artean forma eman diogu omenaldi ekitaldiari. Santa Krutz jaiak gainean direla eta, datarekin estu samar ibili gara, baina azkenerako ekitaldia osatzea lortu dugu. Antolaketa prozesua ahalik eta irekiena eta parte hartzaileena izan da, bileretara hurbildu zaizkigunak bakarka edota taldeak ordezkatzu aritu dira.

Beharrezkoa ikusten zenuen omenaldia egitea...

L.E. Biltzen ari garenak bereziki berari esker ona adierazteko premia genuen. Bere galeraren mina hortxe dugu, baina ez genuke andoaindarraren aurrean bere erueda ahazterik nahi. Andoingo herriak Mikel oroitzeiko aukera izatea beharrezko ikusten dugu.

Beragandik oso gertu egon zintenoiz entzunda, arrasto sakona utzi du zuengan...

L.E. Hamabi urtez aritu zen gure herrian, askorengan eragin handia izanik. Beste batzuk, gerora ere, Mikelekin ha-



Azken asteetan omenaldi ekitaldia antolatzen ari den batzordea, Urigain kultur etxearen kanpoaldean.

"Herriar talde bat egin zuen lan guztiagatik eta herriari egindako ekarpenagatik esker ona emateko biltzen ari gara"

Luis Escudero

remanetan jarraitu genuen. Gazte ginen bera ezagutu genuenean, eta heldutasun aroa-

ren hasieran harrapatu gintuen. Pertsona modura heldutasun hori lortzen lagundu zigun: batzuei fedearen bitartez, beste batzuei kultur mailan eta beste batzuei gizartearen alorrean.

Mikel deserosoa zen, zeure buruari etengabe galderak egitera eramaten zintuen horietakoa. Konpromisoa itsatsi zuen gutako askorengan.

Hortik aurrera hainbat lagun ekimen ezberdinetan mugitzen hasi ginen, berarekin eta bera gabe.

Gure belaunaldiarengan eragin zuen, baina baita beste alor askotan ere. Geldirik egoten ez zen pertsona horietakoa zelako.

Udalgintzan ere ekimen handia erakutsi zuen, batzordeetan parte hartzen baitzuen.



Sorabillan lagun taldea. Eserita, ezker eskuin, Luis Escudero, Juan Antonio Alduntzin, Jon Mikel Mujika, Rita Diaz, Maite Oiarzun, Joxema Setien eta Mikel Goenaga apaiza. Lurrean eserita, Junkar Guerrero eta Txinto Sanchez.

"Mikel deserosoa zen, zeure buruari etengabe galderak egitera eramaten zintuen horietakoa. Konpromisoa itsatsi zuen gutako askorengan"

Luis Escudero

Hogeita bost lagun bildu zarete omenaldi ekitaldia antolatzeko. Kopuru polita da hori...

L.E. Askotxo gara, bai. Egin zuen lan guztiagatik eta herriari egindako ekarpenagatik esker ona emateko biltzen ari gara. Asko gara eta ikuspegi ezberdinak ditugu. Denbora gainera etorri zaigu, hori da pena, baina borondatea eta gogoia sobera ditugu. Igandekoa parte hartzeko ekitaldia izango da, talde modura antolatu dugun omenaldia da. Baina norberak Mikel oroitzen zuen bezala gogoan hartzeko eguna ere izango da.

OMENALDIA



Apirilak 24, igandea

Sorabilla

Omenaldi ekitaldia

**MIKEL GOENAGA
APAIZAREN OMENEZ.**

Egitaraua:

11:15 Plaka irekiera erretore etxean.

11:30 Meza.

12:30 Omenaldi ekitaldia frontoian.

#KATIUSKAERRONKA

Errefuxiatuak gogoan

Urnietan egoitza duen Altradi enpresa Europara datozen errefuxiatuei helarazteko oinetako eta katiusken bilketa egiten aritu zen, aurreko astean. Azken ekitaldia igandean egin zuten Donostiako Zulo-

aga plazan, Donostia Kulturak antolatuta. Gipuzkoako elkartasunari esker, milaka oinetako iritsiko dira errefuxiatuak pilatuta dauden guneeetara.

Larrayoz anaiak -Altradi-ko langileak- esperienziaren berri eman diote Aiurri astekariari: "Katiuska erronkarekin Donostiatik mezu garrantzitsua bidali dugu. Laguntza emateaz gain, errefuxiatuei gure elkartasun-adierazpena eman diegu. Gogoratu behar dugu errefuxiatuak gerratik ihes egiten ari direla, bere lur maitea utzita. Ihes egitea ez da euren gogoko aukera. Beldurrak mugitzen ditu".

Katiuska erronka ekimenak arrakasta handia izan du, dena 15.000 pare bildu direlako. Horien artean aurki daitezke Buruntzaldean bildutakoak. Urnietako enpresak parte hartze zuzena izan du, "Altraditik 1.500 bidali ditugu Urnietako, Andoaingo edota Hernaniko herritarrek emandakoak. Jende



Altradi enpresa eta bertako langileek parte hartze zuzena izan dute.

asko pasa baita Altraditik bere oinetakoak uztera".

Zuloaga plazako ekitaldiaren hasieran, plazaren erdian

18 katiuska pare ipini zituzten. Espainiar estatura iritsitako errefuxiatuen kopurua adierazi nahi izan zuten hasiera horre-



Aurreko igandean Donostiako Zuloaga plazan ekitaldi sinbolikoa egin zuten.

kin. Atzean pilatuta milaka katiuska gehiago zeuden. Bada, Donostiara hurbildutako haurrek katiuska eta oinetako ho-

riek plazan txukun txukun jartzten aritu ziren, errefuxiatuei hona etortzeko gonbidapen modukoa irudikatuz.

gertuan bostekoa
gaintik ukoa
gainekotik urruti
ondoan hurkoa
beti aintzindaria
beti gertukoa
esker emate hau da
horren lekukoa

**MIKEL
GOENAGA**
apaizari

**omenaldia
SORABILLAN**
2016 apirila 24

11:15etan PLAKA IREKIERA
erretore etxean

11:30etan MEZA

12:30etan EKITALDIA
frontoian

Kapela soinean, ibili jaietan



2016, apirila



Ondo pasa
Santakruzetan!



Bitxikeriak
Arropa

Nagusia, 6.
ANDOAIN
943 59 12 24



Gertaera liskartsuak iraganean, danborradan emakumeak parte hartzeko eskatuz

HOGETA HAMAR BAT URTE ATZERA EGINEZ, DANBORRADATAN EMAKUMEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ESKAERA LISKAR ITURRI BILAKATU ZEN. SANTAKRUTZETAN HERRITARREN ARTEAN EZTABAIDA ETA HASERREALDI SUTSUAK PIZTU ZIREN.

Jaiak berdintasunean gozatzeko aukera eztabaidagai izan da aspalditik Euskal Herrian, eta zer esanik ez Andoainen. Batez ere danborradetan islatu izan da emakumeek ere parte hartu ahal izatearen aldarria Andoainen. 80ko hamarkadan Santa Krutzetan ekimen ugari burutu zen kalean aldarrikapen horren alde, eta egunotan zenbait emakumek ordukoak gogorazi nahi izan dituzte.

Franco hil ostean egundoko bizitasuna hartu zuen egoera sozio-politikoak; inoiz baino indartsuago kaleratu ziren gizarte arazoak, historikoki konpondu gabeak, eta testuinguru horretan genero berdintasunaren premia ezin ozena entzun zen. 1980an dibortzioaren legea onartu zen Madrilgo kongresuan, abortoarena ere bidean zen, eta bien bitartean, etengabea zen eremu guztietan emakumeek gizonen pare bizi ahal izateko eskubidearen aldeko oihua.

Gizarte esparru askoren artean, herri jaiak bilakatu ziren aldarrikapenaren eszenatoki. Izan ere, jaiak hartu izan dira historikoki komunitate bateko kideak sozializatzeko espazio gisa. Jaietan egiten da ikusgarrien herri baten kultur



Emakumeak lurrian eserita Santa Krutz ermitaren parean eta danborrada baten ibilbidean, 80ko hamarkadaren hasieran.

identitatea, eta aldi berean, ondo pasatzeko gizakiak berez daukan gogoia. Jaiak hartzen dituen konotazio bereziak

kontuan edukita, eta Andoaingo erralitatez etorrira, esan daiteke danborradaren tradizioan adierazi zela argien

eta liskartsuen, nonahi eta balditza berberetan festaz gozatzeko eskubidearen aldarrikapena.

Añaxa
Eguneko menua
Plater konbinatuak
Razioak
Plater bereziak
Hitzartutako menuak ...
Ondo pasa jaietan!
Martin Ugalde, 4-behea
943 50 83 52

aldama_tapia
aholkularitza
Ondo pasa Santakrutzetan!
Txitibar plaza, 3-behea • Tel.: 943 594 476 / 943 300 167 • 20140 ANDOAIN

XIXORI
DIETETIKA ZENTRUA - KONTSULTA NATURISTA
BELARDENDA
Ondarreta, 9 ☎ 943 590 199
Txitibar, 4 ☎ 943 245 023
ANDOAIN
Gora Santakrutzak!

ORDUTEGIA:
Astelehenera: 15:00-19:00
Astearterik ostegunera: . 09:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00
Jai zoriontsuak!
ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA
Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa
Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

TXINDOKI TABERNA
BOKA
TEGIA
EDARI
TEGIA
Gora Santakrutzak
Kale Nagusia, 55.
20140 ANDOAIN
Tel: 943 592 954



Emakumeen parte hartzea aldarrikatu zuten orduko hainbat emakume Santa Krutz elizaren ondoan bildu zen garai hartako protesta ekitaldiak gogoan hartzeko.

Orain bi urteko jaien hasierako pregoia 1964an danbor-jotzaile gisa kalera irten ziren emakumeek bota zuten. Nahiz eta urte bakarrean gertatutako salbuespena izan, frankismoan zehar gertakizun historikotzat hartu zen hura. Gertakizun hark, baina, herritar askoren memorian iraganeko gertaerak pitzea eragin zuen; hain zuzen ere, emakumea eta danborradako parte hartzearen baitan ondorengo hamarkadatan izan zen soka luzea.

Joan den astelehenean, Andoaingo emakume talde bat Santa Krutz elizaren parean bildu zen, 80ko hamarkadan zehar gertatu ziren ekimen eta liskarrak gogoratzeko. Gertaera nahiko gatazkatsuak izan ziren eta gizarte mailako garai bat islatu arren, Andoaingo herriaren hurbileko memoria historikoan behar bezala idatzita ez dela geratu uste dute. Horrenbestez, memoria lauso hori freskatzeko, eta historia txiki eta gertukoek ematen dizkiguten irakaspenetatik ikas litekeela adierazteko ere, elkartzearen premia ikusi zuten.

PROTESTAK DANBORRADEN AURREAN

80ko hamarkadan bi elkartek antolatzen zuten danborrada: **Peña Santakrutz** eta **Zumeatarra**; bietan gizonak izaten ziren

Andoaingo emakume talde bat Santa Krutz elizaren parean bildu zen aurreko astean, 80ko hamarkadan zehar gertatu ziren ekimen eta liskarrak gogoratzeko

danbor-jotzaileak. Zenbait emakumek eskaera egina zuten eurek ere parte hartu nahi zutelara esanez. Jasotako erantzuna ezezkoa izaten zen. Hori ikusita, ezinegon hori emakume talde batek kalera eramateko erabakia hartu zuen.

1984an, Santa Krutz ermitaren parean, Zumeatarra danborradaren ibilbidea oztopatuzko lurrian eseri eta protesta egitea erabaki zuten. Gau hartan hartutako argazkian ikus daitekeen moduan, hauexek izan ziren kaleratu zituzten hainbat lelo: *“Danborrada mixta baten alde”*, *“Zoraturik ala? Danborra jotzen ez uztea ere!”*, *“Danborrerak bai, kantinerak ez”*. Eserialdi hartan, bat egin zuten herriko danborradan danbor jotzaile izateko ilusioa sentitzen zuten zein horrelakorik sentitzen ez zuten emakumeek. Eskubide berdintasuna aldarrikatu nahi zuten.

Gau hartako protesta ekitaldiak liskar eta zalaparta ugari ekarri zuen; unerik larrienak agian, danborradak bertatik pasa nahi izan zuenean gertatu zen. Emakumeek lurretik altxa nahi ez, eta ika-mika ugari gertatu zen. Elizaren eta zubiaren inguruan danbor-jotzaileak zein emakumeak babesteko bildu ziren herritarren artean sesiorik ez zen falta izan. Iskanbila ez zen gau hartara mugatu, eta hurrengo egun eta asteetan emakumeen parte hartzearena Andoaingo herritar askorentzat eztabaidagai nagusi bilakatu zen.

Joan den astelehenean garai hura gogoratzeko bildu ziren emakumeek ziurta dezaketenez, gertakizun hark ezagunen arteko agurra ukatzeak ez ezik, haserre latzak ere eragin zituen. *“Festa izorratu nahi izatea”* leporatu zieten zenbait herritarrek orduan, nahi izan zuten gauza bakarria festak modu askean eta bazterketarik gabe gozatzeko eskaera plazaratzea izan zenean.

1985ean Zumeatarra elkartean gai honi buruzko batzarrean danborrada mistoaren alde egitea erabaki zuten. Aukera izan zuten lehen aldi hauzpa-bost emakumek parte hartu zuten.

Hurrengo urteetan protesta Peña Santakrutz elkartera bideratu zen. Emaku-

Gizarte mailako gertaera haiek Andoaingo herriaren hurbileko memoria historikoan behar bezala idatzita ez direla geratu uste dute orduko hainbat protagonistek

mezkoek ezezkoa jasotzen jarraitu zuten, eta ezinegona modu ezberdinetara kaleratu zen; azpimarragarriena, elizaren parean emakume talde batek kate bat alde alde jarri zueneko. Danborradako kide batek katea kolpe batez hautsi, eta bidean aurrera egin zuten. 2009an Peña Santakrutz elkarte misto bilakatu zen, bertako bazkideek hala erabakita.

Askoz lehenago, 1990ean Amnistia-aren Aldeko Batzordeek jaietan ere danborrada ateratzeari ekin zioten. Hasiera-hasieratik mistoa izan dena.

Azkenik, Agustin Leitza elkarteak 1997an ekin zion danborrada antolatzeari. 2013ko San Juan jaietan mixtoaren aldeko pausoa eman zuten.

AUZOETAKO DANBORRADAK

Karrikan 1980an hasi ziren danborradekin. Mistoa izan zen, hasiera-hasieratik. Kaletxikiko jaietan 1986an hasi zen danborrada, eta 2009tik mistoa da. Etxeberrietakoa 1997an hasi zen, hasieratik mistoa.

ALDARRIKATZEN JARRAITU BEHARRA

Andoaingo gizartearen mentalitatea eboluzionatzen joan den heinean, danborrada baztertzailen auzia amaitutzat eman liteke. Badago oraindik zer egina gizarte esparru askotan urrutira gabe, elkarte gastronomikoetan bazkide izateko eskubide erreala gauzatzearena. Alde horretatik, emakume talde honek uste du ez duela gaurkotatzen galdu Andoaingo danborraden historian emakumeek erakutsi izan duten grinak. Aitzitik, inoiz baino premiazkoagoa ikusten du eskubideak aldarrikatzen jarraitzea, nahiz eta horrek gizartearen gatazka zehatzak eragin, 80ko hamarkadan Santakrutz inguruan gertatu ziren moduan.



Ondo pasa jaietan, ingurua zainduz eta bizilagunak errespetatuz

Santakruzak Andoainen, egitaraua



Apirilak 30, larunbata. 10:30. Patin lehiaketaren bigarren edizioa
lazko edizioaren errepikapena, Zumea plaza inguruan.



Apirilak 30, larunbata. 23:00. Zozongo taldearen kalejira
Perkusio doinuak kalez kale, txosnatatik abiatuta.

Apirilak 29, ostirala

Jaien hasiera

- 16:00 Zumea plazan haur pregoia.
- 16:30 Txokolatada Zumea plazan.
- 17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan. Euriarekin, Ondarreta ikastetxean.
- 18:00 Izan Izar abesbatza Santa Krutz elizan.
- 18:30 Zumea plazan puzgarriak. Euriarekin, Ondarreta ikastetxean.
- 19:00 Klean zehar buruhandi eta erraldoiak Zumea plazatik.
- 19:00 Klean zehar Gora Kaletxiki txaranga, Basterotik.
- 19:00 Zumeatarra elkartearen danborrada, Zumeatarratik.
- 19:30 Pregoa.
- 20:00 Bekoplazan txosnen irekiera.
- 20:00 Bekoplazan aizkora desafioa: Txatarras-Arizmendi.
- 23:30 Bekoplazan: Los Zopilotes Txirrius, Laket.

Apirilak 30, larunbata

Auzo bazkaria

- 09:30 Haurrentzako arrantza lehiaketa Espigoian. Federatu txartela ez duenak bertan ateratzeko aukera izango du.
- 10:30 II. Patin lehiaketa.
- 12:00 Basteron hasita, kantu kalejira.
- 12:00 Txalaparta tailerra haur eta helduentzat Zumea plazan, ondoren "Txalakleta & Biziparta on road" Zumea plazatik hasita.
- 12:30 Urki dantza taldearen kalejira eta ondoren emanaldia Zumea plazan.
- 14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian.

Bazkaltzeko, bakoitzak berea. Ondoren, La Jodedera.

- 17:30 Erreka jaitsiera.
- 18:00 Haurrentzako tailerrak, jolasak eta puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin, Ondarreta ikastetxean.
- 19:00 Elektropatxaranga txosnetatik hasita.
- 19:30 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.
- 19:30 Txistulariak Zumea plazatik hasita.
- 22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada.
- 23:00 Batukada Zozongo txosnatatik hasita.
- 00:00 Bekoplazan berbena: Ezustean, Ingo al Deu?

Maiatzak 1, igandea

Sagardo lehiaketa

- 10:00 Herriko artisauen azoka, Zumea plazan.
- 10:30 XXXI. Kros herrikoa, Bixente Huizi memoriala, Bekoplazan.
- 11:30 Zumea plazatik haur krosa.
- 12:30 Leizaur parkean txirrindulari lasterketa.
- 12:30 Andoaingo Batukada feminista Zumea plazatik hasita.
- 13:00 Mugaz Gazte banda, Kale Nagusian.
- 17:00 Basteron hasita, Soinuak taldearen kalejira.
- 18:00 Sagardo lehiaketa Zumea plazan. XXX. edizioa.
- 18:00 Zumea plazan talogileak, "Basatiloak" taldearekin.
- 18:00 Elkartasun ekitaldia txosnatan.

bitoria
arraindegia

Ondo pasa jaietan!

Eskola, 3
Tel.: 943 30 39 66 - 20140 Andoain.

Zabala
Ordukari
Bitxitegia

Kale Nagusia, 14
☎ 943 593 745
ANDOAIN

Ondo pasa festetan
Gudari enparantza, 5
☎ 943 332 341
HERNANI

Goizeko 06:00etatik aurrera irekita

urkiola
TABERNA

Etorri eta dasta itzazu gure tabernako pintxo goxoak!

Kale Nagusia, 19. Andoain
943 300 142

"Ondo pasa Santakruzetan!"

Aita Larramendi Ikastola
Jaietan ere ekin euskaraz

Gora Santa Krutzak

Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus

ikastolenelkartea

Amaia
ESTETIKA

Ondo pasa jaietan!

- Depilazio elektrikoa eta laserra
- Presoterapia
- Aurpegirako tratamenduak: - C bitamina.

Kale Nagusia, 49 • ANDOAIN • Tel.: 943 300 669



Urnieta

udala

INBERTSIO ESTRATEGIKOAK ERABAKITZEKO PARTE HARTZE PROZESUA • URNIETA, 2016KO UDABERRIA

1. Kiroldegiaren eraberritzea



HELBURUA: Egungo kirol instalazioen egoera aztertuta eta Urnietan kirola praktikatzen duen pertsona kopurua aintzat hartuta, ageriko desoreka bat dago. Bada, hori konpontzeko herriak etorkizun ertain-luzean izango dituen beharretara egokituko den azpiegitura eraikitzea.

*Aurrekontua: 3.750.000 euro. Obren iraupena: 24 hilabete. Mantenu-kostua: 100.000 euro/urtean.

2. Idiazabal kalearen antolamendua



HELBURUA: Oinezkoei lehenetasuna ematea herriko kale nagusian. Hala, herri atseginoago bat izatea lortuko da eta Idiazabal kale osoa zeharkatzeko aukera eskainiko da.

Irisgarritasuna hobetzeko proiektuen artean sartzen da.

*Aurrekontua: 2.000.000 euro. Obren iraupena: 16 hilabete. Mantenu-kostua: 5.000 euro/urtean.

3. Estalitako igerileku berria



HELBURUA: Igerileku berri bat eraikita herria kirol instalazio hobeez hornitzea eta urte osoan zehar estalitako igerileku bat edukitzea.

Proiektu hau gauzatzeko kiroldegia eraberritu behar da ezinbestean.

*Aurrekontua: 1.980.000 euro. Obren iraupena: 12 hilabete. Mantenu-kostua: 380.000 euro/urtean.

4. Aranzubi kaleko mugikortasuna



HELBURUA: Aranzubi eta Idiazabal kaleak batzen dituen aldapako mugikortasuna hobetzea oinezkoei lagungarriak izan daitezkeen baliabideak eskainiz. Horretarako 4 arzapala mekaniko jarri beharko liriteke.

*Aurrekontua: 1.500.000 euro. Obren iraupena: 12 hilabete. Mantenu-kostua: 100.000 euro/urtean.


5. Eteneta-San Juan igogailua



HELBURUA: Irisgarritasuna hobetzea Osasun zentroa, haurtzaindegia... dauden zonaldea, herriaren erdigunearekin (Udaletxea, Eliza, Sarobe, Lekaio...) lotuz. Irisgarritasuna hobetzeko proiektuen artean sartzen da.

*Aurrekontua: 1.000.000 euro. Obren iraupena: 12 hilabete. Mantenu-kostua: 10.000 euro/urtean.

6. Plazido Muxika plaza estaltzea



HELBURUA: Herrian estaldutako tokiak edukitzea eguraldi txarra egiten duen egunetan ekintza desberdinak gauzatu ahal izateko. Bestalde, irisgarritasuna hobetzea Plazido Muxika plazaren inguruan.

*Aurrekontua: 800.000 euro. Obren iraupena: 8 hilabete. Mantenu-kostua: 1.000 euro/urtean.

7. Etxebizitza sozialak



HELBURUA: Udalaren jabetzakoak diren Errekalde kaleko lokal batzuetan gazteei eta behar sozialak dituzten herritarrei, etxebizitza zerbitzu bat eskaintzeko aukera ematea.

*Aurrekontua: 750.000 euro. Obren iraupena: 12 hilabete. Mantenu-kostua: 10.000 euro/urtean.

8. San Juan plazaren birmoldaketa



HELBURUA: San Juan plazan ingurune atsegino bat sortzea, harreman sozialak garatzeko aproposa den leku bat edukitzea eta oinezkoen lehentasuna ematea.

*Aurrekontua: 550.000 euro. Obren iraupena: 12 hilabete. Mantenu-kostua: 2.000 euro/urtean.

9. Txusakako (Xoxoka) plazaren berregituraketa



HELBURUA: Txusakako plaza berregituratzea eta tamaina handiagoko estalitako frontoi bat eraikitzea ekintza desberdinak aurrera eramateko. Hau da, leku balioaniztun bat sortzea.

*Aurrekontua: 500.000 euro. Obren iraupena: 12 hilabete. Mantenu-kostua: 10.000 euro/urtean.

10. Aparkalekuak



HELBURUA: Herrian dagoen aparkaleku kopurua handitzea eta inguruko herrietara edo Donostiara garraio publikoa erabiliz joatea errazten duten aparkalekuak egitea.

*Aurrekontua: 480.000 euro. Obren iraupena: 6 hilabete. Mantenu-kostua: 2.500 euro/urtean.

11. Oztarango pasagunea



HELBURUA: Andoaindik datorren bidea Lasarte-Urnieta doanarekin lotzeko 350 metroko pasagunea bat egitea. Modu horretan, Urnieta, inguratzen duten hiru herriekin (Andoain, Lasarte eta Hernani) lotuta geratuko da.

*Aurrekontua: 450.000 euro. Obren iraupena: 7 hilabete. Mantenu-kostua: 6.000 euro/urtean.

Informazio karpa eta bozketa garaia

APIRILAK 22, OSTIRALA:

Etxeberri plazan 10:30etatik 14:30etara, eta Guria tabernaren ondoan 17:00etatik 20:00etara.

APIRILAK 25, ASTELEHENA:

Lizardin 10:30etatik 14:30etara, eta Etxeberri plazan 17:00etatik 20:00etara.

APIRILAK 26, ASTEARTEA:

San Juan plazan 10:30etatik 14:30etara, eta Lekaio kultur etxearen kanpokaldean 17:00etatik 20:00etara.

NOIZ ARTE BOZKA DAITEKE?

Maitzaren 9a izango da botoa eman ahal izateko azken eguna.

NORK BOZKA DEZAKE?

Urnietan erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek. Herrian zehar jarriko diren buzoi eta kutxatan utzi ahal izango da bozka. Urnieta.eus webgunearen bidez bozka daiteke ere.

NOLA BOZKATU BEHAR DA?

11 proiektu horien artean lehentasunak ezarri behar dira. Hau da, proiektuak 1etik 11ra bitarte izendatu behar dira. Lehenetsi nahi den proiektuari 1 zenbakia jarriko zaio, bigarrenari 2 zenbakia, eta horrela hurrenez hurren.

Ondoren, jasotako orri guztietan agertzen diren proposamenek jaso dituzten puntuak batuko dira zein inbertsio gauzatuko diren erabakitzeko.

“Proiektu honek herritar guztiei eragiten digu, etorkizuneko Urnieta eraikitzekeo giltzarri izango da eta”

INBERTSIO ESTRATEGIKOAK ERABAKITZEKO abian jarritako parte hartze prozesua murgildu da jada bere faserik erabakiorrenean. Herritarrek haien proposamenak aurkeztu eta Udaleko teknikariek aztertu ostean, 11 proiektuz osaturiko behin-betiko zerrenda bat argitaratu zen. Orain, 11 proiektu horien artean lehenetasunak jartzeko –bozkatzeko- garaia iritsi da eta parte hartzeko dei egiten die Mikel Pagola alkateak herritar guztiei.

Zein helbururekin jarri zenuten martxan parte hartze prozesua?

Hauteskunde kanpainen hartutako konpromezu bat betetzeko. Gainera, prozesu hau giltzarri izango da etorkizuneko Urnieta eraikitzekeo eta prozesu hori denon artean eraman nahi genuen aurrera. Hau da, Udaleko arduradunen eta herritarren artean. Horrek ez du esan nahi guk gure ardurari muzin egin nahi diogunik baikik eta herritarren ahotsa gero eta gehiago entzun nahi dugula.

Gutxienez 4 milioi euro bideratuko dituzue inbertsio estrategikoetara. Apostu handia da.

Kontutan hartu behar da diru hori udalaren gerakinetik irtengo dela, eta ez udalaren aurrekontutik. Edonola ere, kantitate handia da, eta beraz, apustua ere bai. Bestalde, Udala inguruko erakundeetatik diru iturriak lortzen saiatuko da ahalik eta diru gehien edukitzeko eta ahalik eta proiektu gehien gauzatzeko.

Herritarrek baloratzen al dituzte horrelako ekimenak?

Parte hartzeaz asko hitz egiten da baina oraindik parte hartze dinamikak ez daude erabat barneratuta. Ikasi egin behar dugu. Guk aurreko legegintzaldian izan genuen beste esperientzia bat, baina orduan ez genuen nahi genuen emaitza lortu. Izan ere, herriaren zati bat mobilizatzea lortu genuen baina ez dena. Orain, beste pauso bat eman nahi dugu. Halere, garbi daukagu parte hartze kultura hori ez dela bere kabuz sortuko eta guk udaletxetik bultzatu eta sustatu behar dugula. Aurrerantzean Urnieta udalaren funtzionatzeko eredu parte hartzean oinarritua izatea nahi dugu.

Aipatu duzu Urnieta etorkizuna baldintzatuko dutela inbertsio estrategikoek. Jendea jabetzen da prozesuaren garrantziaz?

Herritarrek haien proposamenak aurkezteko aukera izan zuten aurreko fasean eta orotara 219 orri eta 383 proposamen jaso genituen. Nik esango nuke emaitza ez dela txarra, nahiz eta orain, bozkatzeko garaian, parte hartze hori handiagoa izatea gustatuko litzaigukeen. 400.000 eurotik gorako



MIKEL PAGOLA, URNIETAKO ALKATEA

“Proiektu honek urnietar guztiei eragiten digu. Hori da nabarmendu nahiko nukeen ideia. Hortaz, parte hartzera eta haien ekarpenak egitera animatzen ditut herritarrek, asko dugu jokoan eta”

proiektuak gauzatu dira eta jendea jakitun da proiektu serioak eta handiak direla.

Proposamen gehienak zeren alde egiten zuten?

Kiroldegien eraberritzearen eta irisgarritasunaren aldekoak izan ziren jaso genituen proposamen gehienak. Horrek herritarren nahien pista batzuk ematen dizkigu baina ikusi egin behar zer iriten den azkenean. Bestalde, aipatu nahi nuke jaso genituen proposamen batzuek ez zituztela betetzen prozesuaren hasieran zehaztu genituen baldintzak eta horregatik ez dira agertzen behin-betiko zerrendan. Dena den, kontutan hartuko ditugu etorkizunerako.

Horrelako prozesu bat aurrera eramatea erantzukizun handia da. Zailtasunak izan dituzue bidean?

Diru asko dago jokoan eta ardura handia dugu. Prozesua ahalik eta modurik egokienean gauzatu nahi izan dugu hasieratik baina ez da erraza. Gauza asko hartu behar dira kontuan: hala nola, prozesua nola bideratu, faseak erabaki, nori zuzendu eta funtzionamendua zehaztu. Bidean etengabe erronka berriekin egin dugu topo baina erronka horiek guztiak ahalik eta modurik txukunenean konpontzen saiatu gara.

Prozesua jada faserik garrantzitsuenean sartuta dago eta jendeak erabakia behar

bezala har dezan informazio ugari ematen ari zarete.

Ezinbestekoa da herritarrek behar bezala informatzea eta ahalegin berezia egiten ari gara 11 proiektuak ezagutzera emateko: aurkezpen publikoak burutu ditugu, informazio liburuxkak banatu ditugu, proiektu bakoitzaren gaineko bideoak jarri ditugu webgunean eta informazio karpak jarriko ditugu kalean hurrengo astean.

Zein izango da bozkatzeko funtzionamendua?

11 proiektuen artean lehenetasunak ezarri behar dira. Hau da, proiektuak 1etik 11ra bitarte izendatu beharko dira. Lehenetsi nahi den proiektuari 1 zenbakia jarriko zaio, bigarrenari 2 zenbakia eta horrela hurrenez hurren. 16 urtetik gorakoek izango dute bozkatzeko aukera. Bestalde, kontuan eduki behar da %25a irisgarritasun proiektuetara bideratuko dela. Esaterako, Eteneta-San Juan igogailua eta Idiazabal kalearen antolamendua sartuko lirake multzo horretan. Halaber, kiroldegia eta estalitako piszina berria bi proiektu desberdin dira eta bigarrenaren gauzapena baldintzatuta dago lehenengoren eraberritzearekin. Izan ere, piszina berri bat eraiki beharko litzateke eta ez litzateke legala izango azpiegitura egokirik ez bagenu: aldagela berriak, ibilbide berriak kiroldegi barruan... Behin bozkaketa amaituta eta proiektu bakoitzak jaso duen puntu kopurua batuta lehenetasun zerrenda bat eratuko da eta horren arabera Udaleko hirigintza saila lanean hasiko da.

Zer hartu behar dute kontuan herritarrek bozkatzeko garaian?

Alde batetik, Urnieta gaur egun eta etorkizun ertain-luze bati begira dituen gabeziak zeintzuk diren kontuan eduki behar da eta horren arabera egin beharreko hobekuntzak erabaki. Bestetik, proiektu bakoitza egiteak suposatuko duen kostuaz gain, proiektu bakoitzak izango lukeen mantenu-kostua aintzat hartzea garrantzitsua da. Izan ere, zenbait proiektu urteroko mantenu-kostu handia dute eta horiek gauzatu gero, urteroko aurrekontuan eragin zuzena izango lukete, eta, ondorioz, egun ditugun beste zerbitzu batzuk kendu beharko lirake.

Orain berriro ere herritarren txanda da. Zein mezu bidali nahi diezu?

Proiektu honek urnietar guztiei eragiten digula. Hori da nabarmendu nahiko nukeen ideia. Hortaz, parte hartzera eta haien ekarpenak egitera animatzen ditut herritarrek, asko dugu jokoan eta.

Apirilaren 29tik maiatzaren 3ra

18:30 Bekoplazan hasita herri danborrada.

20:00 Plaza dantzak Bekoplazan.

Maiatzak 2, astelehena Koadrilen eguna

11:00 Bekoplazan hasita, herri kirolak txarangak alaituta.

14:30 Bekoplazan koadrilen bazkaria. Euriarekin, Ondarreta ikastetxean.

16:30 Kale hezitzaileekin jolasak Zumea plazan. Euriarekin, plazako arkupeetan.

17:30 Bekoplazan hasita koadrilen kalejira DJ Bull-ekin.

17:30 Haurrentzat Irrien lagunak Zumea plazan. Euriarekin, Ondarreta ikastetxean.

18:30 V. Bizikleta festa haurrentzat Zumea plazan, 2-10 urtekoentzat.

20:00 Santa Krutz elizan koroa eta txistulariak.

20:30 Karaokea txosnatan.

23:00 DJ Bull txosnatan.

Maiatzak 3, asteartea Santa Krutz eguna

10:30 Ikurriñaren jaitsiera, eskopeteroek lagunduta.

10:30 Ezpata dantza Zubiaurren.

11:00 Meza santua Santa Krutz parrokian.

11:30 Ezpata dantza eta brokel dantzak.

11:30 Andoaingo trikitilariak.

12:00 Txakolin dastaketa ermita parean.

19:00 Kalejira elegantea. DJ ibiltaria txosnataki hasi eta Zumea plazara.

19:00 Taberna arteko pintxo lehiaketa. Parte hartzaileak: Irunberri, Txosnak, Xaxi, Txindoki, Trainurum, Gaztelutxo, Txalaka, Txitibar, Bastero, Tokitxo, Etxeberria Hiru, Urkiola, Txuribeltz, Ama-klaudia eta Zeru.



Maiatzak 3, asteartea. 19:00. Koadrila elegantea

Elegantez jantzitako kalejiraren edizio berria. Antolatzaileek auzotarrei elegante janztera dei berezia egin die.



Maiatzak 1, igandea. 18:00. Basataloak

Sagardo dastaketa, talo jatea eta batukada Zumea plazan.



Maiatzak 3, asteartea. 19:00. Taberna arteko pintxo lehiaketa

Bastero kafetegia izan zen iazko irabazlea pintxo lehiaketan. Berriki jaso du Jai Batzordearen oroigarria. Argazkian, Urrats inprimategiko Rober Brosa Aimar semearekin, Haizea Anton eta Karmele Arruti pintxoaren egileak eta Ion Beloki Jai batzordeko kidea.

arruti gozotegia **Etxeko obradorea: pastelak, pastak, ogi bereziak..**

Zumea 18
ANDOAIN
943 593 777

Ondo pasa Santakruzetan!

arrutigozotegia@hotmail.com

zeru

Zumea plaza, 6-behea
943 59 37 17 - Andoain

Taberna Zeru **Gora Santakruzak!**



ORMENDI **KIROLAK**

AMARENTZAKO OPARIA doan lor dezakezu!

Ondo pasa festetan!

Kale Berria, 2 • Tel./Faxa: 943 59 18 06
20140 Andoain (Gipuzkoa)



Mendoza txurreria urrian ireki eta Santa Krutz jaiak igaro arte zabalik izaten zen

“ANDOAIN ETA ANDOAINARRAK” ARGAZKI LIBURUAK MAKINA BAT OROITZAPEN BERPIZTU DITU IRAKURLEEN ARTEAN. MENDOZA TXURRERIARI BURUZKO BI ARGAZKIEK, ESATERAKO, ADINEKO ASKOREN IRAGANEKO OROIMENA BERPIZTU DUTE.

Non ote da Mendoza familia? Galdera horixe etorri zaio burura bati baino gehiagori azken aldian. Bada, Santos Mendoza eta Juanita Escribano bikotea eta Virgilio semea Alacanten bizi dira aspaldiko urteetan. Txurreria 1996ko Santa Krutz jaien ondoren itxi zuten betiko. Virgilio ezkondu eta Alacanten lanpostua topatu zuenez, hara joatea erabaki zuten, eta hantxe bizi dira geroztik.

Ama dabil pattal samar osasunez, orain hamalau bat urte ictusa jasan zuenetik, baina gainontzerakoan ez dute baztertu betiko umorea, Kaleberriko txurrerian bezeroekin tratuan erakusten zuten huraxe bera.

Poz ederra eragin die liburuan bi argazkiak agertu direla ikusteak. Virgiliok Aiurriri adierazi dionez, bihotzean daramatate Andoingo herria eta bertako herritarrak. “Ez dugu galdu harremana gure betiko lagunekin. Neroni, urtean bizpahiru txandatan azaltzen naiz herrian, eta gurasoak telefonoz aritzen dira adiskideekin; Andoingo berriak jarraitu, jarraitzen ditugu, nahiz eta urrun, kilometro askotara bizi”.

Ohartuta daude liburuko argazkiak direla eta andoindar askori piztu zaie la jakin-mina Mendoza Escribano familiaren gainean. “hiruron partetik, jakin bezate guztiak ere besarkadarik beroena luzatzen diegula. Emozioa piztu zaigu argazkiak ikusterakoan, Andoain zenbat maite dugun frogatzeko baliagarria izan da”.

TXURRERIA SANTOS SALTOKI MITIKOA

Santosek eta Juanitak 1959an ireki zuten. Biak ere emigranteak ziren. Gizona Santos Terrinches (Ciudad Real) herrian jaio zen, eta gaztetan Nafarroara abiatu zen lanera lehenbizi. Handik, Andoainera etorri zen, Plazaolako tren-



Virgilio Mendoza Santos eta Juanita gurasoekin Alacanten, erretratu zaharren liburua eskuetan dutela.

“Emozioa piztu zaigu argazkiak ikusterakoan, Andoain zenbat maite dugun frogatzeko baliagarria izan da”

txikia hartuta. Lanbide askotatik igaro zen bertan: okina izan zen Arratibeleanean, eta hiru enpresetan jardun zuen ondoren, Intex, Moleda eta Silenen. Azken horretan hartu zuen erretiroa.

Juanita, berriz, Fuentepelayon (Segovia) jaio zen, eta gaztetan Madrilerara joan zen zerbitzera. Familia aberats baten etxean lanean aritzen zen, eta udan haiekin Donostiara etortzen zen. Txikiardindin famatua zen dantzaldietako batean Santos ezagutu zuen. Ezkondu eta

Andoainean bizitzen jarri ziren.

1996ra arte jardun zuten txurroak egiten eta saltzen. Santosek txurroak frijitzen zituen eta Juanita haiei azukrea gehitzeaz eta salmentaz arduratzen zen. Semea laguntzaile izaten zuten edozer-tarako.

N1 errepideak oraindik Andoain erdigunea zeharkatzen zuen garaietan, makina bat autok geldialdia egiten zuen bertan; txurroak erosi eta bidean jatea zuten usadio askok, ibilaldia gozoagoa bihurtzekotan.

Asteburu eta jaiegunetan irekitzen zuten; urrian ekiten zioten denboraldiari, eta Santa Krutz jaiekin amaitu.

Behin betirako itxita, txurreri postua txatarretara bota zuten. Nolanahi ere, oraindik Alacanteko etxean gordetzen dituzte txurroak egiteko eta patata friji-tuak zuritzeko eta mozteko orduan era-

Txurreria 1996ko Santa Krutz jaien ondoren itxi zuten betiko. Santos Mendoza eta Juanita Escribano bikotea eta Virgilio semea Alacanten bizi dira aspaldiko urteetan

biltzen zituzten makinatxoak. Virgiliok serio adierazi duenez, “hortara jarritz gero, oraindik txurro ederrak egingo genituzke makina horiekin”.

ANDOAINARRAREN GOGOAN DAUDE

Txurreria leku estrategikoan kokatzen zen: Norteko trenbidearen azpian, eta Kaleberria eta Olagain auzora eta Leitzaian bailarara doan bideak eta Kaleberriak bat egiten duten paraje horretan. Nahiz eta txurreriarren arrastorik ez egon, “txurreria” hitza aipatu hutsarekin zein leku adierazi nahi den Andoingo jende askok ulertzen du... Dударik gabe, ondo txertatuta geratu zen urtetan aurrera doazenen andoaindarraren iruditerian.

Badira inguru horretatik pasatzerakoan txurro beroen usain gozoa sentitzen dutenak, oraindik.

Mendoza txurreriarren istorioa ez da letra larriz pasako Andoingo historia-ra, baina aipamen hutsak oraindik andoindar ugariren bizipenak eta sentimenduak pizten dituela ikusita, ekimen bat jarri nahi da abian etorkizunean ere andoaindarraren memorian bizirik jarrai dezan, orain baino modu ikusgarriagoan. Bultzatzaileetako Txanka Arruti andoaindarra da, eta txurreriarren inguruko bizipen ezberdinak jaso eta bere oroimena luzaroan irauteko zereginen murgilduta dabil.

KUKUTEI
HARATEGIA - URDAITEGIA

Ondo pasa jaietan!

Kale Nagusia, 59
Tel.: 943 593 152
20140 ANDOAIN

Hautatutako produktoak

ARANBURU
artekaritza - Aseguruak - Aholkularitza

Gora Santa Krutz jaiak

AXA

Kaleberria, 6 behea
ANDOAIN
☎ 943 590 814
Faxa: 943 592 403

artekaritza@agencia.axa-seguros.es

DANENA

Ondo pasa Santakrutzetan!

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bakatak

Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - 20140 Andoain

Katramila 2016ko pregoilaria

**AURTENGO JAIEN HASIERA ANTZERKIZALE ELKARTEAREN
ESKUTIK IRITSIKO DA.**



Katramila 2014ko inauterietan.

Azken urteetan antzerkizaletasuna sustatzeko ezinbesteko eragile bihurtu da Katramila antzerki taldea. Haur eta gazte mailako taldeak sustatzeaz gain, helduen artean egitasmo ezberdinetan parte hartu dute. Hala nola, "Martxoak 8 emakume" kalejiran edota "Andoaindarrak 400" herri antzerkian.

Jai batzordeak aurreko kultur mailako talde baten esku utzi du jaiari hasiera emateko ohore hori.

Datorren ostiralean –apirilak 29– Katramilako ordezkariak Zubiaurre etxeke lehen solairura igoko dira. Inoiz baino gehiago, ikusgarria izango da.

AZKEN URTEETAKO PREGOILARIAK

- 2015 Auzoko merkatariak.
- 2014 1964ko danborradako emakumeak.
- 2013 Urki dantza taldea.
- 2012 Olinpiapopularrak.

Danborrada ostean taberna zabalik

**DANBORRADA AMAITUTA PEÑA SANTAKRUTZ ELKARTEKO
TABERNA ZABALIK IZANGO DA, TXARANGA DOINUEK ALAITUTA.**



Peña Santakruz elkarteko hainbat kide, lazko edizioan.

Peña Santakruz elkarteko danborrada apirilaren 30ean irtengo da, larunbatarekin, gaueko 22:30ean hasita. Elkartek aurtengorako berrikuntza baten berri eman nahi du. Izan ere, danborrada amaituta, elkartean bertan txaranga musika doinuak eskaintzen arituko den bitartean, elkarteko taberna zabalik egongo da bertan kontsumitu nahi duen edonorentzat.

Danborradaren aurretik, elkartekahi bezala bi entsegu deitu ditu. Biak

ere datorren astean izango dira, apirilaren 26an eta 28an, iluntzeko 20:00etan hasita Leitzarar jatetxearen ondoko lokalean.

AMNISTIAREN ALDEKO DANBORRADA

Bi entsegu deitu dituzte apirilaren 26an eta 28an, gaueko 21:00etan hasita Leitzarar jatetxearen ondoko lokalean. Horrez gain, presoen aldeko txosnan lan egin nahi duenari Irunberrin izena eman dezakeela gogorarazi nahi diote.

TXITIBAR

Ondo pasa Santakruzetan

Zumea plaza, 7 behea
20.140 ANDOAIN - 943 570 492
www.txitibar.com

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua

Saioa Audikana Ansa
Aitor Sarasola Astigarraga

Eskola kalea,
6-atzealdea 8. lokala
20140 Andoain
(Gipuzkoa)
Tel.-Faxa: 943 591 202

LEIZARRAN
Gestión Inmobiliaria

Jai zoriontsuak igaro!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Faxa: 943 591 856
e-mail: inmoleizaran@gmail.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak

KEINU

Gora Santakruzak!!

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak (txapelak, mantalak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN
637 283 224
keinuandoain@gmail.com
www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus

Saldias arrandegia

Zumea kalea, 5
ANDOAIN
Tel.: 943 590 704

Ondo pasa festetan!

Aizkora desafioa herriko gazteen artean

APARTEKO AIZKOLARI DESAFIOA IRAGARRI DA JAIEN HASIERARAKO: EGOITZ GOROSTEGI "TXATARRAS" ETA JON ARIZMENDI GAZTEAK AIZKORAN ARITUKO DIRA, AURREZ AURRE. HARRITUTA DAUDE DESAFIOAK PIZTU DUEN IKUSMINAGATIK.

Apustua dela eta hasi dira trebatzen aizkorarekin; aurretik, sutarako egurra mozten aritu izan dira, ez gehiago. Izatekotan ere, Jonek hartua du aizkora lehenagotik, bere lantokiko lankideekin: "Joseba Otaegi aizkolari zizurkildarra lankide dut, eta behin, desafioa egin genion elkarri: hark zortzi kanaerdiko eta nik bakarra, ea zein zen azkarragoa". Erdi txantxetan hasitakoa, serio amaitu zuen. "Lankideen arteko kontua izan zen, inongo publizitaterik eman gabe. Berak irabazi zidan; aisa aritu zen, eta nik, ordea, ordu erdia behar izan nuen bakarra ebakitzeko".

Desafio hura aitzakia polita bihurtu zen oraingo hau piztu zedin, Egoitzek gogoratu duenez, "parranda batean sartu zen gure artekoa: Otaegirekin eduki zuena kontatzen ari zela sumatu nuen Jon; ni erne jarri nintzen bazterretik entzuten. Halako batean, euren arteko elkarriketan sartu, eta tentatu egin nuen; baiezka eta ezezka hasi, eta berehala agertu zitzaizkigun idazkariak eta xaxatzaileak inguruan, papera eta boli-grafoarekin apustuaren baldintzak idatzi eta hura sinatzeko esanez. Bertan lotu genuen apustua".

Hurrengo goizean, Egoitzek Joni mezua bidali zion, "gogoratzen bart gauekoa? Serio doa gauza, ezta?". Biek argi zeukaten aurrera egin behar zutela, eta aginduari eutsi diote, nahiz eta hasieran



Jon Arizmendik eta Egoitz Gorostegik iazko urrian lotu zuten desafioa.

oso ondo jakin ez zer nolako langintzan sartu ziren. Desafioa 2016ko urrian lotu bazuten ere, azken bizpahiru hilabeteetan ekin diote joko prestatzeari.

Jon Arizmendik **Joseba Otaegi** lankidea hartu du prestatzaile gisa, eta Egoitz Gorostegik **Patxi Astibia** leitzarra. Leitzaraino joan behar izaten du Egoitzek, aizkora ikastera: "kale erdian egiten ditugu saioak. Herri guztiak dauka gure apustuaren berri, eta jubilatua eta ikustera hurbiltzen zaizkigu. Kontuz ibili beharra dago Leitzan, ia denak baso lanetan ibilitakoak baitira. Errespetuz segitzen dituzte gure saioak hala ere, barrerik egin gabe ni bezalako

kalekume bati".

Nor bere aldetik ari da prestatzen; eurek ez daukate elkarren berri izpirik eta gutxiago ingurukoek. Ezjakintasun horrek apustuari emozioa emateaz gain, faboritua nor izango den argitzea nekeza da.

APUSTU GIROA BI PARTAIDEEN INGURUAN

Afaria jarri dute jokoan, ez gehiago. Jaietan giroa sustatzearekin konformatzen dira, eta bide batez, herri kiroleko zaletasuna pixka bat sustatzearekin. Ez zuten uste, ordea, desafioak horrenbesteko ikusmina eta zalaparta eragingo zuenik: "Ohartuta gaude aizkolari

Nork lehenago ebaki hiru enbor, bi kanaerdiko eta oinbateko bakarra, horixe da desafioa. Bekoplazan jarri dute hitzordua, pregoia amaitu bezain pronto hasiko dena

profesionalen erakustaldi batek baino jende gehiago erakarri dezakeela herriko bi xelebreen arteko desafio batek", aitortu du Jonek. Lankideak ere adi-adi daude: "50 euro edo antzeko kopururen bat ari da jendea jokatzen, bata edo bestearen alde. Lantokian esana didate erdi txantxetan, argi ibili ez badek irabazten!".

Diruaren eta apustuaren gainetik, plazan itxura ona eman eta ikuskizun polita eskaintzen saiatuko dira biak. Daukaten guztia emango dute plazan, baina galdu arren pozik erretiratuko direla ziurtatu dute. Egoitzek argi hitz egin du: "enborretan eta aizkoratan dirua jarri dugu, eta alde horretatik biak galtzen aterako gara. Baina ni behintzat ez naiz egindako bideaz damutzen. Oso gustura aritu naiz orain arte, aizkoraren kontua oso bizipen polita izan da". Jon ere ez da atzean geratu: "Batzuk kiroldegian ez dakit zenbat diru xahutzen duten bezala, guk gauza bera aizkorarekin", adierazi du.

Gora Santakruzak!

Amama Klaudia
GASTROBENTA - DASTATZE - DEKORAZIO ETA ARTEA
GOSARIAK - EGUNEKO MENUA - HANBURGESAK
PRESTATUTAKO JAKIAK - BOKATAK - **Harategi-Urdaitegia**
Zumea plaza, 5-behea. Andoain
943 031615 / 607 327432. www.amamaklaudia.com

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Ondo pasa Santakruzetan!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

Gabilondo
AHOLKULARITZA

Ondo pasa jaietan!

Kale berria, 1-behea • Tel./Faxa: 943 303 025
20140 ANDOAIN
E-maila: asesoriagabilondo@yahoo.es

EROSKI city

Ondarreta

Ondarreta kalea, 10-12
ANDOAIN
943 300 760
Jai zorientsuak!

943 593 627
Ondarreta kalea,
9-behea
ANDOAIN

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxoak

Ondarreta

Ondo pasa jaietan!

ANA BELEN GARCIA ORGANOJOLEARI ELKARRIZKETA

Organo emanaldia

Andoaingo udal musika eskolako banda eta hiru abesbatzak San Martin Elizako organoarekin uztartuko dituzte larunbat arratsean, ez ohiko kontzertua

eskaintzeko. Doinu klasikoak eta modernoak uztartuko dira eta Andoaingo herrian dagoen musika aberastasuna beste behin erakusteko balio izango du.

Kontzertua berrizaila eta erakargarria egiten duten osagarri ugari bilduko dira San Martin elizan larunbatean: Katrin Iturralde zuzentzen dituen Udal musika eskolako hiru abesbatzak (gaztetxoak, gazteak eta helduak), Mikel Emezabalek zuzentzen duen udal musika banda, eta, Ana Belen Garcia organoan.

Garcia organojoleak azaldu du kontzertu bereziaren zergatia: "bi helburu nagusi planteatu ditugu emanaldia antolatze-ko orduan. Andoaingo herriak daukan organoaren ezaugarriak bistan jartzea lehena, eta bigarrena, Andoainen dauzkagun abeslari eta musika joleek elkarrekin emanaldia ematea. Denak uztartu nahi izan ditugu eta horrexegatik jarri diogu "organoa eta lagunak" izenburua kontzertuari".

Ordu beteko iraupena izango du saioak, eta errepertorioak baditu harribitxi ugari, doinu klasikoak eta modernoak nahasten direlarik.

Kontzertuak zati ezberdinak izango ditu. Koroan musika banda egongo da, Ana Belen organojolarekin batera; hiru abesbatzek, berriz, bi lekuetan jardungo dute: elizaren aldarean eta koruan. Koruan hiru kamera eta aldarean pantaila handia ezarriko dira, eta azpiegitura tekniko horri esker, koruko abestiak ere zuzen-zuzenean jarraitu ahal izango du publikoak. Hiru kamarek koruan gertatzen ari den guztiaren ikuspegi ezberdinak eskaintzeko aukera emango dute, publikoak, kontzertua entzuteaz gain irudi bidez aurrez aurre eduki ditzan musika joleak, instrumentuak, organoaren teklatuak, organojolealen hatzak eta oinak mugimenduan...

ORGANOAREN KALITATE BIKAINA
Andoaindarrok kalitate handiko organoa edukitzeagatik pribilegiatuak garela adierazi du Ana Belenek. "Mekanikaren aldetik, soinaren aldetik... egundokoa da. Organojole ugari ditu Andoaingoak, elizkizun ezberdinetan txandakatzen dire-



Ana Belen Garcia Nemesio Olariaga Andoaingo semeak 1907an herriari eskaini zion J.Merklin markako organo alboan.

nak. **Besteak beste, Begoña Mujika, Miryam Ulanga, Juan Luis Urmeneta, Lontxo Oiartzabal eta Ana Belen.** Igandero bi meza egokitzen zaizkio azken honi; ahal duenetan jotzen du hala ere, Donostiako Santa Maria Basilikako organojole titularretako bat baita. Ana Belen orga-

noak publiko zabalarengan gerturatu nahian dabil aspaldiko urtetan. Bere moldagarritasuna aldarrikatu ohi du, beste edozein instrumentuekin egokitze-ko daukan erraztasuna alegia. "Jendeak maiz pentsatzen du organoa soilik elizaren musikarako balio duela, baina ez dela

hala. Nik egin izan ditut kontzertuak hainbat instrumentu ezberdinekin: txalaparta, klarineta, akordeoia, biolina... Jendea harrituta geratzen da, eta gozatu egiten du, musika arloan gauza berri baten testigu izan delako".

HURBILTZEKO GONBIDAPENA

Kontzertua amaitu osterako, Ana Belenek gonbidapena luzatu die entzuleei. "Beldurrik gabe etor daitezela Korura. Elizako eskailera estuak igo eta organora hurbildu daitezten animatu nahi ditut. Ohituta nago Gipuzkoako organo ezberdinekin egin ohi ditudan emanaldi pedagogikoetan jendearen edozein galderari erantzuteko, teklatura ukitzeko... Gustura erakutsiko dizkiet organoaren sekretuak".

Gonbidapena, larunbateko kontzerturako ez ezik organoa erabiltzen den aldi guztietarako luzatu du Ana Belenek.

Azkenik, aipatu beharra dago musikariek musutruk jardungo dutela, eta doakoa dela sarrera. Bukaeran, bertaratzen direnei ikusleei aukera emango zaie borondatea utzi dezaten, irteeran jarriko den saskian. Haurren minbiziaren alde jarduten duen Joneren Hegoak izeneko elkartearentzat izango da jasoko den diru guztia.

- Andoaingo udal musika eskolako **abesbatzak**.
Zuzendaria: Katrin Iturralde

- Andoaingo udal musika eskolako **banda**.
Zuzendaria: Mikel Emezabal

- **Organoa**: Ana B. Garcia

Andoaingo musikarien kontzertua:
ORGANOA ETA LAGUNAK

23 larunbata 20:00etan
Andoaingo Tourseko San Martin parrokiaren

Juneren Hegoak elkartearen aldeko kontzertua
Concierto a favor de la asociación Juneren Hegoak

Hitzaldia Stop Desahucios elkartearen eskutik

Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan hasita, Stop Desahucios elkarteak hitzaldia eskainiko du Urigainen Eusko Legebiltzarrak eskuartearen duen etxebizitzari buruzko dekretua ardatz hartuta. Elkarteak adierazi duenez, "hitzaldia garrantzia handikoa da Etxebiden alokairuzko eskatzaile gisa izena emanda dauden herriko 340 familientzat". Hitzaldia bidez grabatuko dute, eta ikusgai ipiniko dute Youtubeko "La estafa continúa" kanalean.

Karlos Garcinari ongi etorria

Ostiral honetan harrera egingo diote Karlos Garcinari, eta jarraian haren omezezko afaria egingo dute Irunberrin. Italian zegoela poliziak atxilotu zuen iaz, eta dagoeneko aske dago.

Mozal legea aztergai Irunberrin

MAHAI INGURUA

APIRILAK 23 LARUNBATA
18:30TAN IRUNBERRIN

MOZAL LEGEA ETA
HERRIKOEN AUZIA

CAR PADURA IRUNBERRIKO ABOKATUA
S CHICOS DEL MAIZ MUSIKA TALDEA
IER LOPEZ ARGIAKO KAZETARIA

IRUNBERRI LIBRE

Larunbatean, 18:30ean hasita, Mozal legeaz eta herrikoen auziaz solasaldia egingo dute Irunberrin. Bertan izango da Argiako Axier Lopez kazetaria, Mozal legea aplikatu dioten lehen kazetaria. Harekin batera, Los Chicos del Maiz musika taldeko kideak eta Oscar Padura abokatua hizlari arituko dira.

URKI DANTZA TALDEAREN ERAKUSTALDIA BASTERON

Dantza eginez, ongi etorria udaberriari

Euskal Herriko dantza saio anitzen erakustaldi ederra eskaini zuten Urkiko dantzari gazteek, aurreko igandean Basteron. Hilabeteetan prestatzen ibili eta gero, jatorri eta koreografia ezberdineko

dantza sorta eskaini zuten. Apirila dantza jarduera ezberdinen hilabetea izaten ari da Basteron. Dantzaz konpainiak "Aureo" saioa eskainiko du ostiral honetan, 21:30ean hasita.



Dantzari txikiak irakasle eta musikariek batera, dantza emanaldiaren amaieran.



Helduen taldeak Otsagiko dantzak ekarri zituen.



Gaztetxoak taula gainean.



Gipuzkoako Soka-dantza.



Argazkiak eta bideoak ikusgai www.aiurri.eus.

Haur, gazte eta helduek osatutako taldeek hartu zuten parte Basteroko oholtza gainean, eta txalo zaparrada jaso zuten saio bakoitzeko. Honako errepertorioa taularatu zuten: *Agurra, Makil txiki, Makil handi, Ituren, Aranz, Uztai txiki, Uztai handi, Gipuzkoako Soka-dantza, Arratia, Oriako Sorgin dantza, Launako, eta, Otsagi.*

Udaberriari ongi etorria euskal folkloreaken erakustaldia-rekin egin ostean, Andoingo dantzariak Santakrutzei begira jarri dira.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Herriko 27 leku zerrendatu ditu argitaratu duen eskuorrian

Ibilbide gidatua larunbat honetan, Oroituzen eskutik



Fusilatuen senitartekoen lore eskaintza hunkigarria izaten da, urteak joan eta urteak etorri.

Oroitu elkarteak larunbat honetan, apirilak 23, Andoaingo kaleetan zehar ibilbide gidatua egingo du. 11:00tan Goikoplazatik abiatuko da ibilbidea, eta Alfaro parkean dagoen biktimen aldeko monumentuan amaituko da 13:00ak aldera. Bidean, Oroituz elkarte kideek oroimenaren lekuei buruzko azalpenak emanago dituzte. Horretarako, esku orria argitaratu dute, zeinean Andoaingo hogeita zazpi leku zehazten diren. Historiaren garai hari buruzko ezagutza hobea izateko aukera proposa da.

OMENALDI EKITALDIAREN KRONIKA

Frankismoak zapalduetako herritarrek biktimatzat hartuak izan daitezkeen eskatu zuen beste behin Oroituz elkarteak, aurreko larunbatean Alfaro plazan antolatu zuen ekitaldian.

Ibilbidea goizeko hamaitan abiatuko da Goikoplazatik eta Alfaro parkean amaituko da eguerdiko ordubatak aldera

Lore eskaintza, bertsolariak, musika eta biktimen aldeko hitz hunkigarriak entzun ahal izan ziren "Goiztirian" eskulturaren ondoan urtero egiten den omenaldian.

Jende ugari hubildu zen: biktimak eta euren senideak, herritarrek, herri eragileak, musikariak, e.a. Andoain frankismoak eraildako hogeita bost lagunengatik aldeko lore eskaintza egin eta gero, **Aritz Eskudero** bertsolariak bi bertso abestu zituen. Ondoren, **Elgoibar 1936** elkarte **Hodei Otegi** eta **Iñaki Odriozolak** hitza hartu zuten. Elgoibarren urteak daramatza 1936ko gerrako galtzaileen

testigantzak jasotzen, eta besteak beste, San Migel eta Madariaga auzoetan lurperatuta zeuden gudarien gorpuzkinak azalera lortu dute. Odriozolak Franco hil osteko transizio politikoa salatu zuen, biktimak isilik jarraitzen derriortu zituelako, eta frankismoari inpunite osoa eskaini ziolako.

BANDA ERREPUBLIKARRA

Andoaingo musikari eta kantariak osatutako Banda Errepublikanoak kanta historikoak interpretatu zituen, urtero ohi duen legez. *A las barricadas, Ekaitza, Si me quieres escribir, Hijos del pueblo, Eusko Gudariak, Internazionala...* Saioari amaiera emateko, **Joxe Mari Oiarzabal** musikariak sortu berri duen "**Justizia denontzat**" abestia eskaini zuten, estreina-ko aldiz. Hunkigarria izan zen askorentzat.



Joxe Mari Oiarzabalek Aitor Mendiluze bertsolariak idatzirik bertsokin osatu du "Justizia denontzat" kantua.

Auzoz auzoko lau bilera gehiago, astean zehar



Astelehen arratsaldean Buruntza eta Leizotz aldeko auzotarrak deitu zituzten.

Hamar egunetan Andoaingo zazpi auzuneetan bilera bana deitu ditu Andoaingo Udalak, datozen hilabeteetarako dituen erronka nagusien berri eman eta auzotarren kezak entzuteko. Astelehen arratsaldean Buruntza eta

Leizotz aldeko auzotarrak deitu zituzten eta bertaratu zirenek parte hartze aktiboa izan zuten. Besteak beste, mendi eta baserri bideak, zarrak eta landa eremukoentzako etxebizitza falta hizpide izan zituzten.

Etorkizuneko egitasmoak

EAJ-PNVk erronka berri modura herriguneko trafikokoan berrikuntzak proposatu ditu: "Kale Nagusia eta Joakin Larreta kaleak zentzu bakarrekak bilakatzearen aldeko gara, zehazki Lankide Aurrezki Kutxako errotondatik hasi eta Goikoplazara bitarte". Bestalde, Udal aurrekontuen betetze mailarekin poza agertu du.



EAJko bozeramaile Marijose Izagirre.

Outlet azoka herrigunean



Ormendi kirolak, Kale Nagusian.

Salkin merkatarien elkarteak, Andoaingo Udalaren laguntzarekin, Outlet azoka antolatu zuten aurreko ostiralean. Egun osoan zehar, hainbat dendarik produktuak merke-

aldiko prezioan eskaini zituzten. Besteak beste, arropa merkeago eros zitekeen eta Stop liburudenen liburuak euro batean erosteko aukera eskaini zuten.

Akatsa irisgarritasun lanetan

Irisgarritasuna bermatzeko lanetan, Udalak Elizondo plaza eta Rikardo Arregi kalea banatzen dituen espaloien egokitzapenean akatsa egin duela adierazi du: "Espaloiak uste baino altuera handiago hartu du, eta rappa edo arrapalak ez du inklinazio egokirik. Horrek arazoak sortu ditu ibilgailuan azpialdeetan. Akatsaz ohar-

tuta, epe laburrean Andoaingo Udalak konponbidea bilatuko dio. Bien bitartean, Udalak sortutako eragozpenengatik barkamenak eskatu nahi ditu".

Irisgarritasunari lotuta, Udala egun hauetan Zumea plaza inguruan egokitzapen lanak egiten ari da. Lan horiek amaituta, Etxeberrietan eta Karrikan jarraituko dute.



KIROL ALBISTEAK

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

29. jardunaldia:

Euskalduna 0-2 Zarautz

30. jardunaldia. Igandea, 24:

Oiartzun-Euskalduna. 12:00.

Sailkapena:

1. Anaitasuna	61 puntu
2. Tolosa	58 puntu
3. Real Union	56 puntu
16. Euskalduna	29 puntu
17. Ordizia	26 puntu
18. Orioko	23 puntu

PREFERENTE MUTILAK

26. jardunaldia:

Urnieta 1-2 Baskonia

27. jardunaldia. Igandea, 24:

Astigarraga-Urnieta. 12:00.

Sailkapena:

1. Baskonia	59 puntu
2. Trintxerpe	58 puntu
3. Sanpedrotarra	58 puntu
4. Urnieta	49 puntu
5. Añorga	47 puntu
16. Lengokoak	10 puntu

Amonarriz txirrindulariaren postu onak lasterketatan



Ander Amonarriz Zarautzeko lasterketan.

Antzuola, apirilak 16:

1. Xabier Murgiondo (Ulma)
2. Iñigo Elozegi (Autonervion)
3. Eneko Martinez (Iturribero)
10. Ander Amonarriz (Andoaingo)

Zarautz, apirilak 17:

1. Luken Carvayeda (Buruntzazpi)
2. Xabier Murgiondo (Ulma)
3. Eneko Martinez (Iturribero)
15. Ander Amonarriz (Andoaingo)

Segura, apirilak 16:

- Alebinak:
1. Igor Barandiaran (Ampo)
 2. Dani Fursenko (Andoaingo)
 4. Igoi Pikabea (Andoaingo)

Infantilak:

1. Joanes Telleria (Ampo)
3. Ibai Omeñaka (Andoaingo)
9. Peru Alkain (Andoaingo)
10. Iker Atxaga (Andoaingo)
15. Laiene Pikabea (Andoaingo)

Senior mailako eskubaloi liga amaitu da

22. jardunaldia:

Elgoibar 30-26 Leizaran
Urnieta 20-32 Donibane

Sailkapena:

1. Donibane 41 puntu

2. Haritza	39 puntu
3. Elgoibar	37 puntu
6. Urnieta	24 puntu
7. Leizaran	19 puntu
11. Pulpo	6 puntu
12. Ordizia	4 puntu

Areto futbol txapelketa

A Taldea Allurralden

Txalaka-Aure Maiton
Larunbata, 23. 14:30.
Centro Extremeño-OZU
Igandea, 24. 10:00.
Kutxa-Keler
Igandea, 24. 11:00.
Ekhia-Aure Maiton
Igandea, 24. 12:00.

B Taldea Arraten

Ondarreta-Drink Team
Igandea, 24. 10:00.
Ekaitz-Egur
Igandea, 24. 11:00.
Hogar Extremeño-Pausoka
Igandea, 24. 12:00.
Academia GF
Atsedan.

Igoera lortu dute

Andoaingo Ganbara saski taldeko senior mailakoek datorren urtean 2. mailan jokatu dute, aurreko asteburuko garaipenarekin igoera ziurtatuta utzi eta gero. Liga hasi zenetik sailkapenaren gaildean ibili dira, eta orain liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan balentria lortu dute. Zorionak!

Ganbara SenM 57-53 Andraitz A

Igoera eskura zegoelako edo, izugarri kosta zitzaien garaipena eskuratzea. Bi jardunaldiren faltan igoera ziurtatuta dute. Helburu berria polita da, liga lehen postuan amaitzea.

Ganbara InfM 25-32 Alimak

Denboraldia amaitu da, gazte-txoenak ondotxo ibili direla esan daiteke. Igoerako ligaxkan



Senior mailako taldekideak: Hodei Perez, Ugaitz Alonso, Carlos Larrañaga, Aitor Urretabizkaia, Xabat Petrikorena, Unai Rodriguez, Ion Rodriguez, Aitor Alcantara, Ion Abad, Ander Zalakain, Asier Lizaso. Entrenatzailea: Angel M. Gonzalo.

lehan aritu eta gero, maiatzean udaberriko txapelketan arituko dira.

ASTEBURUAN ALLURRALDEN

Ganbara JubM-Axular
Larunbata, 23. 16:00.

Mendi irteera igande honetan

Igande honetarako Euskalduna mendi taldeak Ollo haranera mendi ibilaldia antolatu du. Antolatzaileek adierazi dutenez, "Ollo harana Txurregi, Txargain eta Mortxe mendien magaletan barreiatzen da. Ibil-

bideak bederatzi herri lotuko ditu. Iruñetik gertu dago eta leku eta txoko ikusgarriak aurki daitezke ibilbidean zehar: Zelaiak, basoa, zereal lurrak, ur jauziak, gatzagak, iturburuak, herriskak". Finean, paisaia

ikusgarriak. Bi ibilbide antolatu dituzte, laburra 14 kilometrokoa eta luzea 21 kilometrokoa.

Informazio gehiago 943 59 22 32 telefono zenbakian edota euskaldunamt.com webgunean.

GRAVNI txapelketatik kanpo

GIPUZKOA 40-28 ERRIOXA

Julen Loitegi-Eñaut Esnaola

GRAVNI, senior maila. Eskuz binaka.

Garaipen argia eskuratu arren, txapelketatik kanpo geratu dira. Jubenil mailako Imanol Odriozolari ere gauza bera gertatu zaio. Hark jokatu dituen partidak irabazi ditu, baina ez da denetan titular izan. Lastima, UKEko txapelketa irabazteko faboritoen artean zegoelako.



Denboraldi amaiera

Euskadiko Ligari amaiera emateko, Bilboko La Salleren aurka bi partida jokatu zituzten. Larunbateko partidaren 18-17 galduta zuten, partida orekatuan. Bigarren partida, berriz, 17-13 irabazi zuten. Partida bikaina denboraldi gogor eta zail bati amaiera emateko, taldeak lesio ugari jasan baititu. Senior mailakoek jubenilen laguntza eskertu nahi dute.





APIRILAK 30
16:30etik 19:00etara
★ URNIETAKO PLAZAN ★
★ **PUZGARRIAK**
PAILAZOAK
JOLASAK
PRIMERAN PASATZEKO EGUNA

II. SuperH
F e s t a
II. Urnietako
MendiLasterketa
Txikia

ANIMA ZAITEZ!!
Ez geratu zure
pultserarik gabe!! **5€**

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larrazmendi
Kultur Buzkano



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 21ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- "La habitación".
Larunbata, 23. 19:30, 22:00.
Igandea, 24. 19:30.
Astelena, 25. 19:30, 22:00.
- Zinema haurrentzat:
"Kung Fu panda 3".
Larunbata, igandea. 17:00.

Literatura

Urnietan

- **Liburuaren nazioarteko eguna**, Iñistorraren eskutik. Liburuak salgai, eta baita maiatzaren 20ko pailazoan emanaldirako sarrerak ere.
11:00-13:00.
San Juan plaza.
Apirilak 23, larunbata.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: Zatarain.
Urnietan: Etxebeste Elkano 9, behea.
Hernani.
- Gaeuz: Urrutia.
Etxeberri, 1.
Florida, Hernani.
Apirilak 23 eta 24.

Musika

Andoain

- "Organoa eta lagunak"
20:00 San Martin eliza.
Apirilak 23, larunbata.
- **Los chicos del maiz, ZZIO**
22:30 Gaztetxea.
Sarrerak agortuta.
Apirilak 23, larunbata.
- **Malkogariyak**
Santakrutzen atariko emanaldia. Antton Arruti, Ion Beloki eta Iñigo Muñoz.
20:30 Irunberri.
Apirilak 28, osteguna.

Jaiak

Andoain

- **Santakrutzak 2016**.
Apirilak 29-maiatzak 3.
- **Sanjuanak 2016**.
Proposamenak aurkezteko epea zabalik.
Epea: Apirilak 29.

Irteera

Urnietan

- **Denda Berri** elkarteak antolatuta, egunpasa Bilbora.
08:00 Denda Berri.
Apirilak 23, larunbata.

Omenaldia

Andoain

- **Mikel Goenaga** apaizaren omenezko ekitaldia.
11:30 Sorabilla.
Apirilak 24, igandea.

Ikuskizunak

Urnietan, Sarobe

- "Gurea da plazerra" ipuin erotikoa, musikak lagunduta.
Apirilak 23, larunbata. 19:00.
- "Chef Chof" haur ikuskizuna.
Apirilak 24, igandea. 17:30.

Informazioa

Andoain, Gazte Lokala

- Gazte informazioaren Europako egunaren harira, bulego ezagutzeko jardunaldiak.
11:00-13:00 / 17:00-20:00.
Apirilak 21 eta 22.

Aurkezpena

Urnietan, Lekaio

- "Joxinixio gudaria" liburuaren aurkezpena. Partaideak: Pello Esnal, Joxe Mari Iriondo.
19:00 Lekaio.
Apirilak 27, asteazkena.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Elene Lizarribarrek 7 urte beteko ditu apirilaren 30ean. Zorionak eta muxu potoloak. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Xuban Del Barrio Azpillaga gure etxeko printze txikiak apirilaren 28an bi urte beteko ditu. Muxu askooooo.

ANDOAIN

ZORIONAK



Oier Muñozek 4 urte bete zituen apirilaren 19an. Zorionak polita!

ANDOAIN

ZORIONAK



Malen Ariztimuño Balentziagak, apirilaren 25ean, 9 urte beteko ditu. Muxu potoloak, etxekoan partetik.

ANDOAIN

Urnietako Akelarrea martxan jartzeko deialdia



lazko San Juan suan estrainez egin zuten Akelarreak harrera beroa izan zuen herrikideen artean. Aurtengoa berriro heldu nahiko liokete egitasmo berdinari: "Sorginak eta pertsonai mitologiko berriak atera nahiko genituzke, eta horretarako zuen laguntza behar dugu. Aurtengo Ake-

larrean parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan. Zure adinak ez du axola, ez da esperientziarik behar, baizik eta ondo pasatzeko gogoia".

Harremanetarako:

666 177 905

Urnietakoakelarrea@gmail.com

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN

Musika ari du ikuskizun paregabea Amasa Villabonan ikusteko aukera

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Apirilak 28, osteguna

19:00. GUREA ANTZOKIAN.

7 euro

Salgai: Andoaingo Ernaitza liburudendan.

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:



PARTAIDEAK:
Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
Euskadiko Orkestrako hari laukotea.
Xabier Zabala pianoa eta eskusoinua.

